

EBAZPENA, 2020ko urriaren 20koa, Unibasq Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluarena; haren bidez, Gradu eta Masterreko unibertsitate-titulu ofizialetarako prestakuntza dualaren aitortpena lortzeko Protokoloa (Unibasqeko Aholku Batzordeak 2020ko urriaren 16an onartua) ematen da argitara.

GRADU ETA MASTERREKO UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIALETARAKO PRESTAKUNTZA DUALAREN AITORPENA LORTZEKO PROTOKOLOA

AURKIBIDEA

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA.....	1
2. XEDEA ETA NORAINOKOA.....	3
3. UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIAL DUALAK EBALUATU ETA AITORTZEKO PROZEDURA.....	4
4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	7

1. ERREFERENTZIA-ESPARRUA

Lehen atal honetan, Protokolo honen eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Kalitate Zigilu edo aitortpenen erreferentzia-esparrua zein den azaltzen ahaleginduko gara.

Hala, eta Euskal Autonomia Erkidegoko eremuaren erregulazioari dagokionez, aipatzekoa da, lehenik ete behin, Gradu, Masterreko eta Doktoregoko tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezarri eta kentzeari buruzko abenduaren 19ko 274/2017 Dekretua, Euskadiko unibertsitate- ikasketa ofizialak, Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparrua inspiratzen eta arautzen duten printzipio eta irizpideei jarraikiz definitu eta antolatu beharko direla ezartzen duena. Trebakuntza handiko giza kapitala prestatzeko funtsezko helburuari erantzuten dio esparru horrek, Euskadiren behar sozio- ekonomikoei erantzun egoki bat eman ahal izateko; eta bestetik adierazten da, euskal hezkuntza- sistemaren, eta euskal gizartearen eta oro har Europako gizartearen espezifikotasun eta indarrei ere erantzun beharko diela.

Dekretu horren 4. artikulua ezartzen duenez, Euskadiko Gradu, Masterreko eta Doktoregoko unibertsitate-ikasketa ofizialen eskaintza hiru mailatan kategorizatuko da: oinarrizkoa, tartekoa eta aurreratua, metodo eta metodologia berritzaileetan oinarritutako prestakuntzan, nazioartekotzean eta enpresa, instituzio eta beste erakundeekiko harremanetan oinarritutako bektoreen arabera, gizarteari Euskal Unibertsitate Sistemaren ezaugarrien gainean ematen zaion informazioa hobetzeko helburuarekin. Dekretuak ezartzen du, halaber, Unibasqek¹ garatu eta iragarri beharko dituela ikasketak kategorizatzeke protokolo eta prozedurak, alde aurretik aipatutako bektoreei jarraikiz.

¹ Ildo horretan gogora ekarri behar da Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 48 artikulua eta Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzko ekainaren 28ko 13/2012 Legeak Unibasqi ematen diotela egoitza soziala EAEn duten unibertsitateetako titulazioak ebaluatzeke eskumena.

Gainera, Hezkuntzako sailburuaren Gradu eta Masterreko unibertsitate-ikasketa ofizialen kategorizazioari buruzko 2018ko uztailaren 27ko Aginduaren helburua da Euskal Unibertsitate Sistemak eskaintako Gradu eta Masterreko unibertsitate-ikasketa ofizialen oinarriko mailaren, tarteko mailaren eta maila aurreratuaren arabeko kategorizazioa arautzea, gizarteak Sistema horren ezaugarrien gainean duen informazioa areagotzeko helburuarekin. Ildo berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak definitutako 2019-2022 aldiko Unibertsitate Sistemaren Planak Unibertsitate Prestakuntza Duala sustatzen du, non enpresetan egindako lana unibertsitate-prestakuntzarekin uztartzen den aldi berean. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren 2022ko Unibertsitate-Enpresa Estrategia Planaren hedapenean Gradu eta Masterreko aipamen edo onespen dual jakin batzuk definitzeko premia ezarri zen Gradurako, Graduondorako eta Doktoregorako Unibertsitate-Enpresa aipamen eta onespenak ezartzeko helburuaren markoan.

Era berean, 2020ko maiatzean, Unibertsitate-Enpresa esparruaren gaineko Unibertsitateen Euskal Kontseiluaren Lantaldearen barruan definitu zen Unibertsitate Prestakuntza Duala ingurune akademiko edo profesionalean integratutako ikaskuntza-proiektu bat garatzera bideratutako prestakuntzat, unibertsitatearen, enpresa edo erakundearen eta ikasleen baterako erantzukizun bereziarekin proiektu horren beraren baterako diseinuan eta baterako garapenean. Era berean, ezarrita geratu zen Unibertsitate Prestakuntza Duala ikaslea behar bezala gaitzera bideratuta dagoela ikaslearen beraren unibertsitate-prestakuntza integrala, haren enplegarritasun kualifikatua eta haren ekintzaitzarako gaitasuna, sormena eta berrikuntza ere ziurtatzeko.

Estatuan erregulazio espezifikoko gabezia bat dagoela adierazi behar da. Unibertsitate-ikaskuntza ofizialak eta haien ondorengo aldaketak antolatzen dituen urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretua ordeztuko lukeen proiektu-zirriborroak soilik egiten du Unibertsitate Prestakuntza Dual horren erreferentzia, Graduatuko eta Unibertsitate Masterreko tituluetan arautzen baitu Aipamen Duala. Errege Dekretuko proiektu-zirriborro horren 18. artikuluan biltzen da Graduatu Dualeko eta Master Dualeko aipamena barnean hartu ahalko dutela Graduatuko eta Unibertsitate Masterreko titulu ofizialek, betiere ikasketak egindako titulazioan honako bi zirkunstantzia hauek gertatzen badira: a) Ikasketa-planak nahitaezko kanpo-praktikak bilduko ditu guztira kredituen ehuneko 25 eta 50 bitarte jasota, 240 kredituko Gradu tituluetan; kredituen ehuneko 20 eta 40 bitarte, 180 kredituko Gradu tituluetan; eta kredituen gutxienez ehuneko 40 edo gutxienez 30 kreditu, Unibertsitate Masterreko tituluetan. Gradu/Master-amaierako lana ehuneko horien barruan hartu behar dela ere adierazten da. Artikuluak erreferentzia egiten du, halaber, nahitaezko kanpo-praktika akademikoak enpresa edo erakunde batean egingo direla, eta ikaslearekin lan-kontratu bat egikaritzuz gauzatuko direla, aipamen duala lortzeko beharrezkoak diren nahitaezko kanpo-praktika akademikoek duten iraunaldi berarekin gutxienez. Gradu edo Master ikasketekin zuzenean lotutako egitekoak gauzatzea izango du helburutzat lan-kontratuak, lan-jarduera betiere edozein unetan jarduera akademikoarekin uztartzeko posibilitatea ziurtatuz.

Horri jarraikiz eta duen zeharkako eragina kontuan izanda, Unibertsitate Ikaslearen Estatutuan bildutako erregulazioa ere aipatu behar da, abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren bidez onartutako Unibertsitateko Ikasleen Estatutuaren 8. artikulua gradu ikasleek praktikak (curriculumekoak edo curriculumetik kanpokoak) egiteko duten eskubidea onartzen du. Praktika horiek kanpoko entitateetan eta Unibertsitatearen zentro, egitura edo zerbitzuetan egin ahal izango dira, aurreikusitako modalitatearen arabera eta beren prestakuntza-helburua lortzera (f letra) eta ikasketa-planean aurreikusten diren kanpoko praktiketan (...) tutoretza efektiboa, akademikoa eta profesionala edukitzera (g letra) bideratuta egongo direla bermatuta.

Halaber, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen uztailaren 11ko 592/2014 Errege Dekretuak praktiken helburuak, entitate laguntzaileak eta hartzailak, betekizunak, tutoretzak eta hezkuntza-

lankidetzako hitzarmenen edukiak garatzen ditu. Arau horrek, gainera, praktiketako ikasleak administrazio publikoen eremuan eta enpresen eremuan txertatzeko aukera sustatu (guztiei “entitate” deituko diegu, irabazi-asmokoak edo irabazi-asmorik gabekoak, publikoak edo pribatuak), etorkizuneko profesionalen enplegarritasuna bultzatu, ekintzailletza, sorkuntza eta berrikuntzarako duten ahalmena sustatu, eta jakintzaren gizartean oinarritutako eraldaketa ekonomikoarekiko konpromisoari erantzun behar dio.

Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan kalitatea ziurtatzeari dagokionez, aipatzekoa da, halaber, Goi-mailako Hezkuntzarako Europar Esparruan Kalitatea Bermatzeko Irizpide eta Jarraibideek —ESG akronimoaz ere ezagunak— ezarritako esparrua. E4 Taldeak sortu ditu (European Association for Quality Assurance in Higher Education (ENQA), European Students’ Union (ESU), European University Association (EUA), European Association of Institutions in Higher Education (EURASHE), besteak beste, honako erakunde hauekin elkarlanean: Education International (EI), BUSINESSEUROPE eta European Quality Assurance Register of Higher Education (EQAR).

Orobat, eta EAEko eremura itzuliz, aipatzekoa da euskal erakundeetan kalitatearen kudeaketa sustatzeko politika, Euskalit Kalitaterako Euskal Iraskundeak bere programen bitartez bultzatua. Horren erakusgarri dugu, batetik, Kudeaketa Aurreratuko Eredua, EAEko industria- zein zerbitzu-eremuetako erakunde publiko eta pribatu ugarietzako erreferentziazko eredu bat dena, eta, bestetik, Eredu horri loturik Euskalitek landutako aitortpenen eskema.

Erreferentzia horiek guztiak gogoan, eta kontuan hartuta, halaber, Duala Kalitate Zigilu edo aitortpenerako deialdietan Unibasqek hartutako esperientzia, eta, bere jardun-printzipioei jarraikiz eta etengabe hobetzeko asmoarekin, Agentziak bere interes-taldeekin aurrera daraman gogoeta, Agentziaren Aholku Batzordeak, 2020ko urriaren 16ko bilkuran, honako Protokolo hau onartzea erabaki du, Euskal Unibertsitate Sistemaren Gradu eta Masterreko titulazio ofizialetan Duala Kalitate Zigilua lortzeko prozedura eta betekizunak ezartzeko helburuarekin.

2. XEDEA ETA NORAINOKOA

Unibasqek Euskal Unibertsitate Sistemaren Gradu eta Masterreko titulazioei emandako Kalitate Zigiluak edo aitortpenak, titulazio horietarako borondatezko ebaluazio-programa baten esparruan ezarritako sariak dira. Aitortpen horien helburua da Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateei laguntzea, beren titulazioetako garrantzizko hainbat alderdi espezifiko hobetzeko bidean. Hortaz, sari horien helburu nagusia da Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateen ahalegina sustatu eta bizkortzea beren titulazioak hobetzeko bidean, bigarren helburua ahalegin hori gizartearen begietara nabarmenago egitea izanik. Zehazki, Unibasqen Kalitate Zigiluak Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate-titulazioetako alderdi jakin batzuetan zentratzen dira, hain zuzen ere, EAEko unibertsitate-politikaren arreta eta hobekuntzaren xede diren alderdietan (ikus aurreko atala).

Protokolo honen ardatza den unibertsitate-prestakuntza dualaren aitortpenaren edo Kalitate Zigiluaren (aurrerantzean Duala Kalitate Zigilua) helburu nagusia da Euskal Unibertsitate Sistemaren Gradu eta Masterreko titulazioetan prestakuntza duala sartzen hobetzeko ahalegina sustatu eta bizkortzea, bigarren helburua ahalegin hori gizartearen begietara nabarmenago egitea izanik.

Titulazio osoari edo bere ezaugarrien arabera Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektu bat planifika edo integra dezakeen titulazio horren ibilbide bati zabaldu ahalko zaio Duala Kalitate Zigilua. Lehen kasuan, titulua ikasten duten ikasle guztiek jasoko dute prestakuntza duala. Bigarrenean, berriz, ibilbidea egiten duten ikasleek soilik, ez, ordea, titulazio bera ikasten ari diren baina ibilbidean sartuta ez dauden ikasleek.

Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatuta dauden Euskal Unibertsitate Sistemako titulu ofizial guztiek lortu ahal izango dute, nahi badute, prestakuntza dualaren aitortpena.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuko unibertsitateen RUCTean inskribatutako titulazio ofizialek prestakuntza dualaren aitortpena lortzeko betekizunak ezartzen ditu Protokolo honek. Beste Unibertsitateen kasuan, Unibertsitatearen eta Agentziaren artean egingo den eta ebaluazio hori kontuan hartu eta garatuko duen hitzarmen baten esparruan aplikatu ahal izango da Protokolo hau.

3. UNIBERTSITATE-TITULU OFIZIAL DUALAK EBALUATU ETA AITORTZEKO PROZEDURA

3.1. Eskaera Unibasqen jasotzea

Unibasqek deialdi bat egingo du urtean, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitateek Duala Kalitate Zigilua edo aitortpena eska dezaten. Unibertsitateek eskaera bat aurkeztuko dute I. Eranskinari jarraikiz, Duala Kalitate Zigilua jaso nahi duen titulu edo ibilbide bakoitzerako, Protokolo honetan ezarritako ebaluazio-irizpideei jarraikiz. Horrez gain, irizpide horiek betetzen direla bermatzeko ebidentziak aurkeztu beharko dira, aparteko beste dokumentu batean. Titulazioen aitortpenerako eskaerak ez dira tramitera onartuko baldin eta Unibasqek edo eskumeneko beste ebaluazio-agentzia batek egiaztatutako edo akreditatutako titulazioaren azken memoriari dagokionez edozein motatako aldaketak proposatzen badituzte. Ebaluazioa eskatu aurretik onartu beharko dira aldaketak, horretarako ezarritako bideetatik aurkeztu ondoren.

Neurri bateko zabalpena duten proiektuak izan beharko dute, eta horrenbestez, zenbait lorpen mahai gainean jartzeko moduan egongo direnak izango dira.

Unibasqeko deialdian eskaera ofizialaren aurkezpen-prozesua zehaztuko da.

3.2. Unibasqek txostena egitea

Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak egingo du aitortpenerako txostena. Jakintzaren hainbat adarretako ospe handiko akademikoek, profil profesionaleko pertsona batek eta ikasle batek osatuko dute batzorde hori. Ebaluazio Batzordeen jardunak, Unibasqek bere Etika eta Berme Kodean eta dokumentu honetan jasotako barne-prozedurako arauetan ezarritako jarraibideen arabera arautuko dira. Profesional, ikasle eta akademikoen aholkularitza izan dezake Batzorde horrek.

Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak txosten arrazoituko proposamen bat landuko du, ezarritako ebaluazio-irizpideak betetzen diren edo ez aintzat hartuta, eta aitortpena ematearen aldeko edo kontrako iritzia emango du. Azken kasu horretan, aldeko txosten bat lortzeko alegazioen epearen barruan ezinbestean aldatu behar diren alderdiak zein diren adierazteko aukera izango da. Txosten-proposamen hori Unibertsitateari bidaliko zaio, egutegiko 10 egunen epean alegazioak aurkezteko aukera izan dezan. Behin epea amaiturik eta, hala badagokio alegazioak baloratu ondoren, Unibasqeko Bektoreetako Ebaluazio Batzordeak behin betiko ebaluazio-txosten bat egingo du, aldekoa edo kontrakoa izan daitekeena, eta Unibertsitate eskatzaileari eta Eusko Jaurlaritzari helaraziko dio. Aldekoa bada, hobetzeko gomendioak txertatzeko aukera izango da, baita aitortpenari eusteko Unibertsitateak hartu beharreko konpromisoak ere, titulazioaren akreditazioaren egiaztapenean, jarraipenean edo berritzean egindako gainerako gomendioak bezala tratatuko direnak.

Gehienez ere 6 hilabeteko epean egingo da txostena, ebaluazioa egiteko behar den dokumentazio guztiaren sarrera-dataz geroztik. Epe horren barruan ebazpen espresurik eman ezean, eskaera ezetsi egin dela ulertuko da.

3.3. Ebaluazio-prozesuaren emaitza

Tituluak edo ibilbideak Duala Kalitate Zigilua edo aitortpena jasotzen duenean, Unibertsitateak txertatuko du, Protokolo honetan ezarritako betekizunak bete dituen ikaslearen tituluaren gehigarrian. Gainera, informazio publikoan eta titulua zabaltzeko jardueretan bilduko du dual-aitortpenaren jabe dela dioen aipamen bat, edo dual-ibilbide bat duela dioena. Azken kasu horretan, tituluaren gaineko informazio publikoan espresuki adierazi beharko dira ibilbidearen izen espezifikoak eta plaza kopurua.

Duala Kalitate Zigilua edo aitortpena lortu duten titulazioak erraz identifikatu ahal izateko, Unibasqek ziurtagiri bat jarriko du bere titulaziorako aitortpen bat lortu duen Unibertsitatearen eskura, bertsio digitalean eta paperean, honako irudi honetan jasotakoaren antzeko aurkezpen bisual batekin:



Aitortutako titulazioari edo ibilbideari lotutako erregistro-zenbaki bat eramango du ziurtagiriak. Ziurtagiri horrekin batera, Unibasqek Unibertsitatearen eskura jarriko ditu Unibasqen Duala Kalitate Zigiluko Markaren irudi-artxibo digitalak bertsio desberdinetan, Unibasqen Kalitate Zigiluetako marken erabilera korporatiborako Eskuliburu batekin batera.

Emandako Kalitate Zigiluak ezin izango zaizkie beste titulazio edo erakunde batzuei laga Unibasqek egindako ebaluazioa gainditu dutenetatik aparte, ezta ebaluazio horren norainokoaren eraginpean ez dauden beste unitate edo eremu batzuei hedatu edo eskualdatu ere.

Honako kasu hauetan, Kalitate Zigilua edo aitortpena ezin izango da inoiz ere erabili:

- Zigiluaren hasierako ebaluazio-prozesua gainditu ez denean.
- Zigiluaren ebaluazio positiboa kendu denean Zigiluaren beraren jarraipen-prozesuan.
- Zigiluaren izaera eraginpean hartzen duen tituluaren funtsezko aldaketa bat gertatzen denean eta aldaketa horrek Agentziaren onarpena ez duenean.

- Sortu den helbururako erabiltzen ez denean.

Duala Kalitate Zigiluari edo aitortenari dagokion Marka Unibasqen jabetza da, eta estatuan eta Europan erregistratuko da; hortaz, lege-babes aplikagarriaren jabe da.

Beren titulazioetarako (titulazio oso bat edo titulazio horren ibilbide bat izan) Unibasqen Kalitate Zigilua edo aitortpena lortzen duten Unibertsitateek edo unibertsitate-zentroek, Unibasqen Kalitate Zigiluei lotutako irudiak edo markak erabili ahalko dituzte titulu horiek bereizi edo sustatzeko. Horretarako, erabilera-eskuliburu horretan ezarritako jarraibideak bete beharko dituzte une oro, baita horrelako kasuetarako ohikoak diren irudi korporatiboko jarraibideak ere. Unibasqen Kalitate Zigilu eta aitortpenei buruzko aipamenak argitasunez eta zintzotasunez aplikatu beharko dira beti, nahasmendua sortzeko aukera saihestuz.

Unibasqek bermatu behar du bere Kalitate Zigiluak edo aitortpenak ongi erabiltzen dituela. Bidegabeko edozein erabileraren berri badu, informazio-prozedura bat hasiko du, eta eraginpeko titulazioaren eta/edo erakundearen arduradunari jakinaraziko dio, presentzialki edo idazki bidez alegazioak aurkezteko aukera izan dezan. Audientzia-prozesuaren emaitzak ohartarazpen bat ekar dezake, non idazki bidez eskatuko den Kalitate Zigiluaren erabileraren baldintzak errespetatu daitezela. Ohartarazpenei kasu egiten ez zaienean edo larritasun handiagokoak direnean, dagozkion legezko jardunak hasiko ditu Unibasqek eta, bidezko bada, beste erakunde edo instituzioei jakinaraziko dizkie gertakariak, baita komunikabideei ere.

3.4. Jarraipena

Protokolo honen bitartez ematen den Kalitate Zigiluaren edo aitortpenaren jarraipena, aitortutako Tituluaren Akreditazioaren jarraipenean edo berritzean integratuko da, edo aitortutako Tituluaren eskaintzaren arduraduna den Zentroaren Erakunde Akreditazioaren berritzean.

Aitortutako tituluaren arduradunek Unibasqi eman beharko diote Kalitate Zigilu hau zabaltzean izaten diren gertaeren berri, eta Agentziak ofizios jaso ahalko du bere eskumeneko Batzordeak edo Zuzendaritzak egokitzat jotzen duen informazio gehigarria.

Aitortutako Tituluaren Akreditazioaren jarraipenean edo berritzean (edo, hala badagokio, Erakunde Akreditazioa berritzean) edo ofiziosko jardun horretan detektatzen bada tituluak jada ez duela betetzen aitortpena lortzeko behar diren betekizunetako bat edo ebaluazio-txostenean jasotako konpromisoak ez direla bete, Agentziak aukera izango du emandako Kalitate Zigilua edo aitortpena kentzeko, baldin eta eskumeneko Batzordeak egokitzat jotzen badu. Unibertsitateak egokitzat jotzen dituen alegazioak egiteko aukera izango du, behin Agentziak betekizunen bat edo batzuk ez direla betetzen jakinarazten dionean. Alegazio horiek aztertu ondoren, Batzordeak behin betiko erabaki bat emango du, Kalitate Zigilua kendu behar den edo ez adieraziz. Kalitate Zigilua kentzeak berekin ekarriko du, automatikoki, aitortpenaren aipamena tituluaren gehigarrian —edo eraginpeko titulu edo ibilbidearen edozein informaziotan edo zabalkunde publikotan— biltzeko ezintasuna.

Ongi justifikatutako salbuespenezko kasuetan —ezinbesteko kasuak, oso krisi ekonomiko larriak eta antzeko kasuak—, Agentziak ez-betetze koiunturala onartuko du Protokolo honetan ezarritako betekizunetako batzuei dagokienez. Nolanahi ere, salbuespenezko egoera horretan dagoen Unibertsitateak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio Agentziari.

4. EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Proposamenen ebaluazioa egingo da jarraian azaltzen diren ebaluazio-irizpideak kontuan hartuz, dagokion egiaztapenerako unibertsitateek aurkeztu beharreko titulu ofizialeko proiektuari dagokion memoria aurkezteko 1393/2017 Errege Dekretuko I. Eranskinean adierazitako atalekin bat etorritz.

Aurkezpena

Hasteko, titulazioaren edo onetsia izan daitekeen ibilbidearen Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektuaren laburpen deskriptibo bat egin ahalko da. Onespena lortzeari begira, lorpen esanguratsuak egiazta ditzaketen nolabaiteko hedatze-maila duten proiektuak izan beharko dute.

Besteak beste, honako alderdi hauek garatzera bideratuta egongo da Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektua: ingurune akademiko eta profesionalean integratutako ikaskuntza; unibertsitatearen, enpresa edo erakundearen eta ikasleen arteko lankidetzaren unibertsitate-prestakuntzaren diseinuan eta garapenean; ikaslearen gaikuntza egokia bere unibertsitate-prestakuntzaren diseinuan eta garapenean, baita haren enplegarritasun kualifikatua, eta ekintzailetzarako gaitasuna, sormena eta berrikuntza ere.

Unibertsitate-Enpresa esparruari buruz Unibertsitateen Euskal Kontseiluaren Lantaldeak egindako protokolo honen erreferentzia-markoan adierazitako lana erreferentzia gisa hartuta, Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektuak erakundean integratzeko prestakuntzaldi bat edo bat baino gehiago bildu beharko ditu prestakuntza dualeko proiektuen –ibilbide dualak dituzten zenbait titulaziotan "Enpresako egonaldiak" deitzen diren– baterako garapenerako, betiere ikaslearen tutorizazio/mentoriar partekatuko rol garrantzitsua dutenak unibertsitatearen eta erakundearen aldetik. Era berean, Gradu Amaierako Lana/Masterra egitea bildu beharko du enpresa edo erakunde batekin edo bat baino gehiagorekin lankidetzan; enpresa eta erakundeetako profesionalen parte-hartzea daukaten irakasgai dualak, unibertsitate-irakasleekin batera, eta bestelako antzeko jarduerak akademikoak.

Prestakuntzaldi horiek ezaugarri bereizgarri argiak behar dituzte izan unibertsitate-praktika konbentzionalen programekin alderatuta. Beste zenbait alderdiren artean nabarmentzekoak izango dira ikaskuntzaren osagarritasun garbia ingurune akademikoan eta ingurune profesionalean, eta prestakuntzaldi horietan enpresak eta unibertsitateak partekatutako tutoretzaren/mentoriararen rola garrantzitsua.

Alderdien arteko lankidetzaren hitzarmen baten bidez formalizatuko da Unibertsitateko Prestakuntza Dualeko proiektua. Hitzarmen horretan adieraziko dira, beste zenbait alderdiren artean, proiektuaren helburuak, garatu nahi diren unibertsitate-tituluen eskumenak eta unibertsitatearen, erakundearen edo erakundeen eta ikasleen betebeharrak. Ikasleak bere prestakuntzaren mentoriarako prestakuntza egokia duen pertsona arduradun bat izango du –protokolo honetan tutorea edo mentorea deitutakoa–, unibertsitatean zein erakundean, Unibertsitate Prestakuntza Dualeko proiektuaren garapen-prestakuntza osoa berma dadin. Erakundean ikaslearen prestakuntzan parte hartzen duen pertsonaren funtzioak duen garrantzia dela-eta, mentoriararen kalitatea ziurtatzen duten curriculum-eskakizun batzuk ezarri ahalko dira.

1. Tituluaren deskribapena

1.1. Ekiten zaion Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektuaren espirituaren eta edukiaren deskribapen xehatua egingo da. Esanda geratu denez, besteak beste honako alderdi hauek garatzera bideratutako proiektua izan

beharko du: ingurune akademiko eta profesionalean integratutako ikaskuntza-proiektu bat; unibertsitatearen, enpresa edo erakundearen eta ikasleen erantzunkidetasun berezia unibertsitate-prestakuntzaren baterako diseinuan eta baterako garapenean; ikaslearen gaikuntza egokia haren unibertsitate-prestakuntza integrala ziurtatzeko, baita haren enplegarritasun kualifikatua, eta bere ekintzaitzarako gaitasuna, sormena eta berrikuntza ere.

1.2. Atal honetan, titulu edo ibilbide dualeko ikasleentzat dauden plazen kopurua adierazi behar da, eta Unibertsitateak bermatu behar du ikasle guztiak hartzeko behar adina entitate dituela. Prestakuntzan parte hartzen duten entitateen zerrenda emango da, baita kolaborazio horiek oinarritzen dituzten sinatutako hitzarmenak ere, hitzarmen horiek eskainitako plazak estaltzen dituztela bermatuta. Era berean, enpresa/erakunde horien egokitasuna justifikatu beharko da ezarri beharreko ibilbidearekiko.

Ikasle guztiak hartzeko behar adina erakunde dituela bermatzeko, Unibertsitateak enpresa bakoitzak hartzen duen ikasle-kopuruari buruzko informazioa aurkeztu beharko du urtero. Konpromiso hau Duala Kalitate Zigiluaren eskabidean jaso behar da.

Ibilbideen kasuan, aurkeztutako Unibertsitate Prestakuntza Dualeko proiektuek plaza esanguratsuen gutxieneko kopuru bat izan beharko dute tituluaren hasi berritako plazen gutzitzkoarekiko edo, halakorik ezean, horrela bermatzen duen proiektio bat bildu beharko dute arrazoizko denbora-epe batean. Tituluarekin zein ibilbidearekin lotutako onespenerako, ikasleak hartzeko eta aurkeztutako proiektua behar bezala hedatzeko beharrezkoak diren bitartekoak dituela bermatu beharko du unibertsitateak.

1.3. Unibertsitateak entitatearen barruan edo entitatearekin lankidetzan emango diren ikasketa-planaren kredituen kopurua adierazi behar du. Onspena lortzeko, zenbait prestakuntza-jarduera dual bilduko ditu Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektuak, honako baldakidetasun honekin oro har:

- Kredituen ehuneko 25 eta 50 bitartean, gutxienez 240 kredituko Graduako tituluetan.
- Kredituen ehuneko 20 eta 40 bitartean, gutxienez 180 kredituko Graduako tituluetan.
- Kredituen ehuneko 40 gutxienez Unibertsitate Masterreko tituluetan.

Ehuneko horien barruan sartu beharko da enpresen edo erakundeen lankidetzarekin egindako Gradu /Master Amaierako Lana.

1.4. Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektuak nahitaez bilduko ditu erakunde batean edo bat baino gehiagotan proiektu profesionalen baterako garapena gauzatzeko erakundearen emandako prestakuntzaldi bat edo bat baino gehiago. Prestakuntzaldi horiek –esan bezala, zenbait titulaziotan "Enpresetako egonaldiak" deitzen direnak– Unibertsitate Prestakuntza Dualeko proiektu baten burutzapena izango dira, betiere Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektuetan integratzen diren Graduako edo Masterreko ikasketetan garatzen diren eskumen eta ikaskuntza-emaitezkin zuzenean lotuta dauden egitekoak inplikatur, egiteko horien gaiari eta kualifikazioari dagokienez.

2. Titulu ofizial bat lortzeko ikasketa-planaren justifikazioa

2.1. Atal honetan Unibertsitate Prestakuntza Dualeko proiektuak duen interesa eta garrantzia justifikatu behar da, titulurako, ikasleentzat, enpresa edo erakundeentzat eta gizartearentzat oro har. Proposatutako Unibertsitate Prestakuntza Dualeko proiektuak aurreko atalean adierazitako eskakizunak bete beharko ditu, eta argi eta garbi adierazi beharko da berezia dela unibertsitate-prestakuntzako beste proiektu edo modalitate batzuekin alderatuta, hala nola praktika konbentzionalei edo normalean erabiltzen direnei lotutakoak.

Ibilbide baten kasuan, zuzentasunez/egokitasunez justifikatzeko, prestakuntza dual eta prestakuntza ez-dualaren arteko konparazio zuzena eta esplizitua egin beharko da konpetentzien eskuratzea eta azkeneko emaitzan dituen eraginaren ezberdintasuna agerian jartzeko.

2.2. Titulu edo ibilbide dualaren diseinuan eta ezarpenean parte hartzen duten entitate edo erakundearen parte-hartzearen maila azalduko da, titulazioaren edo ibilbidearen eguneroko martxan duten ezinbesteko inplikazioa agerian uzteko. Hau da, entitatea edo erakundea ez da bertan jarduera praktikoa egiten dituzten ikasleen hartzaile soila; aitzitik, agente aktiboa da titulazioan eta irakatsi eta ikasteko jardueretan. Titulazioaren/ibilbidearen dual atalaren baterako plangintzari dagokionez akordio bat dagoela agerian utzi beharko da. Halaber, dual prestakuntzaren prestakuntza-programari dagokionez erakundearen eginkizunak definitu beharko dira. Bereziki GAL/MAL-etan, unibertsitateak, erakundea proposamenean, GAL/MAL gaien ebaluazioan eta elaborazioan nola sartzten den azaltzeko dokumentu bat aurkeztu beharko du.

Bestalde, erakundean garatu eta ikasgaiarekin lotura duten ECTS kopurua argi geratu behar da.

Aurkeztuko diren eskaeran zein ebidentzietan prestakuntza dualari aipamen esplizitua egin beharko zaio. Ez dira aintzat hartuko “kanpoko praktika akademikoak” edo “curriculumetik kanpoko praktikak” moduko aipamenak arestian adierazitakoagatik, hau da, betiere argi uzteko unibertsitate-prestakuntza mota honen izaera berezia.

2.3 Horretarako, Unibertsitatearen eta prestakuntza dualan parte hartzen duten entitateen ordezkarien arteko batzorde misto bat bakarria behar da. Batzorde horrek, zehazki, entitatean edo erakundean egindako jardueren eta ikasgelan egindakoen koordinazioa eta integrazioa bermatu beharko luke. Gainera, detektatutako gorabeheren azterketa eta ikasleen jarraipena egin beharko da. Batzordea osatzen duten pertsonak eta hauen profila zehaztu beharko dira. Egiatzenaren jarraipena eta berritzea egiten den bitartean, Batzorde horren bileretako aktak eskatu ahal izango dira, eta Batzorde horren eginkizunei buruzko informazio zehatza baita ere, halaber ikasgeletan egindako jarduerak eta entitateetan garatutako jardueren integrazioa eta koordinazioa bermatzen duen informazioa ere.

3. Konpetentziak

3.1 Atal honetan, titulazioari edo ibilbideari lotuta erakundean garatzen diren konpetentziak eta ikasgelan garatzen direnak zein diren eta nola garatzen diren azaldu beharko da (konpetentzia orokorrak titulazioaren kasuan, eta konpetentzia espezifikak ibilbideen kasuan). Konpetentzia bat bi eremuetan lantzen bada, eremu bakoitzean konpetentzia horrek duen garapen-maila edo konpetentzia eskuratzeko modua adierazi beharko da, adibidez, erakundean eta unibertsitatean irakasten diren kurtsoaren eta ikasgaiaren arabera ECTS-en banaketa aurkeztuz. Halaber, ikasketen emaitzak eta gaitasunak nola lortuko diren ebaluatzeko prestakuntza-jarduerak aurkeztu beharko dira. Nolanahi ere, tituluaren diseinuak eta ezarpenak ikasgelako jarduerak eta entitatean egindakoak koordinatzen eta integratzen dituela agerian uztea da helburua.

4. Ikasleen sarbidea eta onarpena

4.1 Ikasleak parte hartzen duten entitate edo erakundeetan nola banatuko diren adierazi beharko da, eta, nolahi ere, tituluan edo ibilbidean matrikulatutako pertsona guztiek ikasketa-planean aurreikusitako jarduerak entitate edo erakunde batean egingo dituztela bermatu beharko da. Ikaslearen hautaketa-prozesua eta banaketaren deskribapena gehitu behar da, hautaketa egiteko irizpideak zeintzuk diren azalduz eta bere objektibazioa eta baremazioa zehaztu ere bai. Irizpide hauek ezartzeko erantzulea den organoa ere adierazi behar da. Era berean, informazio horrek publikoa izan beharko du titulazioaren webgunean.

4.2 Halaber, ikaslearen eta prestakuntza-jarduera egingo duen entitate edo erakundearen artean nolako lotura ezartzen den adierazi behar da eta Gradu Amaierako Lana edo Master Amaierako Lana beti jasoko du. Onespena lortzeko, beharrezkoa izango da ikaslearen eta prestakuntza-jarduera harekin edo haiekin garatuko den erakunde(ar)en artean ikasleari ordainketa dagoela inplikatzeko duen lotura juridiko bat egotea, ordainketa egotea alderdien artean dagoen erantzunkidetasunaren adierazle gisa ulertzen baita Prestakuntza Dualeko Proiektuari dagokionez. Ikaslearen eta erakundearen edo erakundearen arteko lotura lan-araudian Unibertsitate Prestakuntza Dualari lotutako lan-kontratu espezifikoko figuraren babespean dago. Lan-araudian Unibertsitate Prestakuntzari buruzko lan-kontratuko figura definitzen ez den bitartean, baliagarritzat joko da protokolo honetan bildutakoari begira ikasleari ordainketa egin zaiola dakarren ikaslearen edo enpresa edo erakundearen edozein lotura juridiko, eta ordainsari hori, gutxienez, Lanbide arteko Gutxieneko Soldatan oinarrituta kalkulatu beharko da, eta enpresako gainerako langilearenekin asimilagarria den aseguru bat (lan-arlokoa) beharko dute izan kontingentzia arrunt eta lan-kontingentzia nagusiak estaltzeari dagokionez (ez da beharrezkoa, adibidez, langabeziagatiko kontingentziaren estaldura).

Ikaslearen eta adierazitako enpresa edo erakundearen arteko loturak zera izango du helburutzat, ikaslea egiten ari den Gradu edo Masterreko ikasketetan garatzen diren eskumenekin zuzenean lotutako egitekoak gauzatzea, dagokien gaia eta kualifikazioa kontuan hartuz, betiere edozein unetan lan-jarduera jarduera akademikoarekin uztartzeko posibilitatea ziurtatuz.

Salbuespenezko kasuetan, izaera horretako kontratu edo loturak legalki formalizatu ezin diren enpresetan edo, batzorde mistoaren iritziz, behar bezala egiaztatuta dauden zirkunstantzietan –hala nola ezinbesteko arrazoiak, krisialdi ekonomiko, sektorial edo enpresarial larriak eta antzekoak–, ikaslearen eta enpresa edo erakundearen arteko lan-figura horrek babesten ez duen lotura juridikoa onartu ahalko da, baina betiere Unibertsitate Prestakuntza Dualeko proiektuaren garapen osoa bermatuz, ondorengo jarraipen-txostenean justifikatuta.

Unibertsitate Prestakuntza Dualeko Proiektuan lankidetzan ari den edo ari diren erakundeak/ek ikasleari egin dio(te)n ordainketak erakundearen prestakuntza dualeko proiektuaren baterako garapena gauzatzeko emandako prestakuntzaldiak bete behar ditu gutxienez.

4.3 Oro har, ezin izango dira aitortu entitatean alde aurretik egindako lan-jarduerengatik edo praktikengatik eman beharreko kredituak, batzorde mistoak aitortzen dituztenean izan ezik eta dagokion ikasketa-planean ezarritako mugekin. Horretarako, denborari zein eskakizun-mailari dagokionez baliozkotutako baliokideak diren jarduerak egin direla egiaztatzea beharko da. Egiaztapenaren jarraipena egitean eta egiaztapena berritzean, titulu edo ibilbide dualean izapidetutako kredituen aitortpenari buruzko espedienteak eskatu ahal izango dira.

5. Irakaskuntzen plangintza

5.1 Titulu edo ibilbidearen programazioa aurkeztu beharko da, honako hauek adierazita: ikasgelan egindako jarduerak eta entitatean egindakoak txandakatzen dituzten irakasgaiak, jakintzagaiak edo moduluak, haien iraupena eta ebaluatzeko eta kalifikatzeko irizpideak. Irakasgai, jakintzagai edo moduluetan, zehazki, kronograma azaldu beharko da, ikasgelan egin beharreko jarduerak eta entitatean egin beharrekoak txandakatzeko denborak adierazita. Adibidez, lehen asteetan jarduerak ikasgelan soilik egiten diren eta entitateko jarduerak geroago egiten diren, aste batean ordu jakin batzuk ikasgelan eta beste batzuk entitatean egiten diren eta abar.

5.2 Irakasgai, jakintzagai edo modulu dual edo ikas-ekinezkoen ebaluazioan, irakaskuntza ikasgelan tutorizatzen/mentorizatzen duen pertsonak eta entitatean tutorizatzen/mentorizatzen duenak parte hartu beharko dute. Erakundeak prestakuntza-jardueretan eta ebaluazio-sistemetan duen parte-hartze zehatza zehaztu beharko da. Halaber, irakasgaiak, ikasgaiak edo modulu dualak ebaluatzeko irizpideak adierazi beharko dira. Programazioak, nolana ere, ezarritako ikaskuntza-emaitzak eskuratzeko aukera emango du. Etengabeko eta baterako ebaluazioaren garrantzia dela eta, entitate/erakudearen eta unibertsitatearen arteko baterako tutorizazio intentsibo baten ebidentziak aurkeztea gomendatzen da. Adibidez, ikasleen dokumentu-zorro bat.

Entitatearen barruan edo entitatearekin lankidetzan ematen diren kredituak irakasgai, jakintzagai edo modulu zehatz edo espezifiko batzuetan txertatuta egon beharko dute (konpetentzia batzuk ikasgelan eta beste batzuk entitatean eskuratzen direnetan, hain zuzen ere), eta bien ebaluazioa elkarrekin eta koordinatuta egingo dute arduradun akademikoek eta entitateko arduradunek.

Ikasleek, aldez aurretik, entitateko prestakuntza segurtasun eta eraginkortasunez garatuko dela bermatzeko beharrezkoa den prestakuntza jaso beharko dute.

6. Langile akademikoak

6.1. Irakasle akademikoen profila eta erakunde parte-hartzailearen tutorearen/mentorearen profila adierazi beharko dira, bai eta eredu horri buruz jasotako prestakuntzari buruzko informazio zehatza ere. Erakunde(ar)en tutorearen/mentorearen kasuan, ikasle dualaren eskueran jartzen den haren tutore edo mentore horren esperientzia eta dedikazioa zehaztuko da, hala badagokio. Ikaslearen prestakuntzan parte hartzen duen pertsonak egikaritzen duen funtzioaren garrantzia dela-eta, mentoriaren kalitatea ziurtatzen duten curriculum-eskakizun jakin batzuk ezarri ahalko dira.

6.2. Entitate(eta)ko tutoreek/mentoreek eta irakasleek dituzten betebeharrak adierazi beharko dira, eta entitatearekiko hitzarmenean edota prestakuntza dualean irakasle gisa parte hartzen dutenek sinatutako eranskin batean zehaztu. Unibertsitateak hitzarmen-eredu orokor bat aurkeztu beharko du, erakundearen tutoreak ikasleari eskainiko dion dedikazioa jasotzen duena.

7. Baliabide materialak eta zerbitzuak

7.1 Prestakuntza dualean parte hartzen duten entitateen zerrenda erantsiko da eta Unibertsitateak ikasketa-

planak entitateko jardueretarako zehazten dituen kompetentziak garatzeko baldintza nahikoak egiaztatuta dituztela adieraziko du eta hori guztia nola bermatzen duen justifikatuko du. Zehazki, entitateen xede soziala, instalazioak eta langileen azpiegitura kompetentzia horiek eskuratzeko beharrezkoa den garapen-mailarako egokiak direla adierazi beharko da. Alderdi horiek hitzarmen orokor batean jaso beharko dira. Horrez gain, erakundeak prozeman sartu edo mantentzeko ebaluazio eta jarraipen prozedura zehaztu beharko dira.

7.2 Entitateekin sinatutako hitzarmenak edo, hala badagokio, haiek guztiek bereiz edota beren elkarte edo kluster baten bitartez izenpetu duten eredu txertatu beharko dira. Hitzarmenean, entitateetako tutoreek/mentoreek jasoko duten prestakuntza mota zehaztuko da.

8. Aurreikusitako emaitzak

Atal honetan, ez dago irizpide espezifikorik prestakuntza dual baterako.

9. Kalitatea bermatzeko sistema.

Dualarekin zerikusia duten prozedurak aurkeztuko dira, baita titulazioaren diseinu eta planifikazioarekin, jarraipenarekin eta ezarpenarekin zerikusia dutenak ere. Beharren identifikazioa eta aurreko emaitzen arabera hobekuntza-ekintzak planteatzea ahalbidetuko dute.

10. Eskola-egutegia.

Atal honetan, ez dago irizpide espezifikorik prestakuntza dual baterako.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko urriaren 20an.

IÑAKI HERAS SAIZARBITORIA
Unibasqeko zuzendaria